

## AKTA

### UDAL OSOKO OHIKO BATZARRA

Udal-Osoko ohiko batzarra bildu da:

**Eguna:** 2023/03/01

**Ordua:** 18:00-ak

**Tokia:** Udaletxeko Areto Nagusian

**Bertaratuak:**

**Alkatea:** Jexux Leonet Elizegi

**Zinegotziak:**

EHBildu

Eneritz Arbelaitz Sarasti

Agustin Lekuona Irastorza

Jon del Olmo Larrañaga

Miren Yosune Cousillas Aramendi

Josu Delgado Rozas

Olga Maria Aranzazu Leibar Mendarte

Haizea Saez de Eguilaz Perez (esango den uanean egin du bat batzarrarekin)

Miren Arrosa Lizaso Azpiroz

EAJ-PNV

Rafael Bergareche Urdampilleta

Iñaki Arbelaitz Michelena

Yon Goikoetxea Labaka

Janire Michelena Lecuona

**Idazkaria:**

M<sup>a</sup> Victoria Joaristi Olariaga

**Ezin etorria adierazi dute:**

EHBildu

Olaia Lasa Olaziregi

Enekoitz Marcos Azpiroz

Goratz Gezala Etxeberria

EAJ-PNV

Maitane Larruskain Aguirre

### AZTERGAIAK:

1. 2023ko urtarrilaren 25eko batzarrari dagokion akta onartu zen.
2. 2023 urteko zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren akats zuzenketa onartu zen.
3. 2023. urteko araugintza-plana onartu zen
4. Oiartzungo udalerrian udal hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzaren hasieraz onartu zen

5. Oiartzungo Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) urtebetez luzatzea (III Plan Estrategikoa 2018-2022) erabaki zen
6. Mendiburu kalea 14ko zerbitzu anitzeko udal ekipamenduko 1. fasearen (eraispen proiektua) eta 3. fasearen (oinarrizko eta gauzatze proiektua) lanen kontratuaren azken obra ziurtagiria eta likidazioa onartu ziren.
7. Mendiburu kalea 14ko zerbitzu anitzeko udal ekipamenduko 1. fasearen (eraispen proiektua) eta 3. fasearen (oinarrizko eta gauzatze proiektua) lanen kontratuan prezioen salbuespenerako berrikuspena onartu zen.
8. Landetxeko taberna-jatetxearen ostalaritza zerbitzua kudeatu eta ustiatzeko emakida kontratuaren esleipena onartu zen.
9. Oiartzungo udal eraikinen garbiketa zerbitzu-kontratua luzatzea erabaki zen.
10. Oiartzungo udal eraikinen garbiketa zerbitzu-kontratua aldatzea erabaki zen.
11. 2023. urtean gizarte larrialdietarako laguntza eskaerak emateko irizpideak onartu ziren eta deialdia egitea erabaki zen.
12. Oiartzungo ikastetxeei 22/23 ikasturteko E1 Eskola Kirola, Eskola pilota, Muittu! eta eskola ordugaineko ekintzen koordinazio egitasmoak sustatzeko hitzarmenak sinatzea erabaki zen eta dirulaguntza ebatzi zen.
13. Oiartzuarren Baitan, Txerri Eguna, Euskara Elkartera, Motibazio Saiok Gazteentzat eta Kuadrillategi programak gauzatu ahal izateko Udala eta TTUR-TTUR Euskaltzaleon Bilgunearen arteko 2019-2022 tarterako lankidetzak hitzarmenaren arabera, 2022ko memoria eta kitapena onartu ziren.
14. Udala eta Hitz Hots Kultur Elkartearen arteko 2019-2022 tarterako lankidetzak hitzarmenaren arabera, 2022ko memoria eta kitapena onartu ziren.
15. Oiartzungo ahozko ondarea jasotzeko "Oiartzuarren Baitan" egitasmoa gauzatu ahal izateko Udala eta Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilgunea kultur elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartu zen.
16. Oiartzungo Udala eta Hitz Hots Kultur Elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartu zen.
17. 2023an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko herriko elkarteei dirulaguntzak banatzeko gastua onartu eta lehen zatia ordaintzea erabaki zen.
18. Oiartzungo Udala eta Haurtzaro Ikastolaren arteko hitzarmena onartu eta 2023. urteko dirulaguntza ebatzi zen.
19. Txarondo herri-bidea itxi izanagatik jabari publikoko ondasuna berreskuratzeko espedientea hasia erabaki zen.
20. Beste ekitaldietako hainbat ordainagiri baliogabetu ziren.
21. 2022ko laugarren hiruhilekoari dagokion aurrekontuaren exekuzioaren, aurrekontuz kanpoko mugimenduen eta diruzaintzaren egoeraren berri eman zen.
22. Beste organo batzuen jarraipena egin zen.
23. Ez zen eskaririk ez eta galderarik egin.

## Esan-eginak eta erabakiak

- I -

### AURREKO BATZARRARI DAGOKION AKTAREN ONARPENA.

2023ko urtarrilaren 25ean egindako bilkuraren akta onartu zen aho batez, aldeko 12 botorekin (EHBildu eta EAJ/PNV)

Une honetan bildurarekin bat egin du Haizea Saez de Egilaz zinegotzi andreak.

- II -

### 2023 URTEKO ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN AKATS ZUZENKETA.

2022ko irailaren 28an Udal osoko Bilkurak, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, tasa, kuota, tarifa eta Ordenantzen finkapen, indargabetze eta aldaketari buruzko erabakia hartu zuen. Arauzko informazio publikorako epean inolako erreklamazio eta oharpenik aurkeztu gabe igaro ondoren, erabakia behin betikotzat jo zen eta 2022ko abenduaren 1eko GAOn (228.zk.) argitaratu zen.

Udal Osoko Bilkurak 2023. urterako %1,5eko igoera onartu zuen zerga eta petxen kasuan, hainbat salbuespenekin. Salbuespenen artean, etxez-etxe laguntza zerbitzuaren prezio publikoak jasotzen ziren horrela: “...*tarifa orokorrak Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren baitan egokitzen dira*”.

Berez, igande eta jaiegunetako tarifa orokorra zen Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren baitan egokitu beharreko kopurua, ez ordea astegunetako ordu bakoitzeko tarifa. Izan ere, aurreko urtean hitzarmenak baimentzen zuena baino tarifa altuago ezarri zen igande eta jaiegunetako ordu bakoitzeko eta hori zuzentzeko asmoz aldatu da 3. epigrafea.

Honenbestez, Udal Jarduerak burutzeagatiko prezio publikoengatiko tarifen 3. epigrafean atzemandako akatsa zuzendu behar da.

Gizarte Zerbitzuetako arduradunak egindako txostenaren baitan, ordenantza fiskaletako akats materialak, aritmetikoak eta egitezkoak zuzentzeko, administrazio-prozeduraren araubide orokorrera jo behar da. Administrazio-egintzetan dauden errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak zuzentzea Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua honako hau aurreikusten du: «*Herri-administrazioek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak*».

Honenbestez, Ogasun, Kontu Berezien eta beste gaien Batzordeak 2023ko otsailaren 21ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, honako akordioa hartu du Udal Osoko Bilkurak:

2022ko abenduaren 1eko 228 zk.ko GAOn argitaratutako tasa, kuota, tarifa eta Ordenantzen finkapen, indargabetze eta aldaketari buruzko erabakia Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluaekin bat etorriz, behin betikoa bihurtutakoa, zuzentzea.

Honenbestez, aipaturiko akatsa zerbitzuak eskaini edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren testuaren zenbatekoan dago, eta, beraz, zuzendu egiten da:

— Honako hau esaten duen lekuan:

3. Epigrafea. Etxez etxeko Laguntza-Zerbitzua.

— Tarifa orokorra:

Astegunetan ordu bakoitzeko ..... 18,87

Igande eta jaiegunetan ordu bakoitzeko ..... 22,66

— Esan dezala:

3. Epigrafea. Etxez etxeko Laguntza-Zerbitzua.

— Tarifa orokorra:

Astegunetan ordu bakoitzeko ..... 15,00

Igande eta jaiegunetan ordu bakoitzeko ..... 22,66

Aipatu foru arau horretako 18.1 artikulua xedaturikoaz bat, interesdunek erabakien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian dagokion sailean bi hilabeteko epean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.

Halaber, eta aipatutako aginduak baimendu bezala, interesatu horiek, nahi badute eta administrazioarekiko auzien jurisdikziora jo aurretik, errekurtsua tarteratu ahal izango dute Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean, hilabeteko epean, akordioa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ondoren gaia bozkatu da:

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu / EAJ-PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- III -

2023. URTEKO ARAUGINTZA-PLANA ONARTZEA.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 132. artikuluan, araugintza-plan bat argitaratzeko betebeharrak ezartzen die administrazio publikoei. Araugintza plan horretan, hurrengo urtean onespenerako igorriko diren lege- edo erregelamenduekimenak jasoko dira. Halaber, plana argitara emango da administrazio publikoaren gardentasun-atarian.

Honela, 2021 eta 2022 urteetan Udalak araugintza-planak onartu zituen, baina bertan jasotako ordenantza-ekimen guztiak ez dira gauzatu, eta gauzatu gabe geratutakoak 2023ko araugintza-planean berriro ere barneratzea dagokio.

Bestalde, udal sail ezberdinak emandako informazioaren arabera alde batetik hainbat ordenantza aldatzeko beharra ikusi da, hain zuzen ere, Oiartzungo udalerrian udal hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duena; 2024 urterako Oiartzun Udaleko Ordenantza Fiskala, 2024 ekitaldiko udal aurrekontua gauzatzeko araua; animalien edukitza eta babesari buruzko ordenantza; hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duena; eta herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duena. Bestetik, bi ordenantza berri onartzeko beharra ere ikusi da: Energia elektrikoa, gasa eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioetako tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duena, eta Oiartzungo udalerrian egingo diren planen eta proiektuen eragin linguistikoaren ebaluazioa (ELE) egiteko prozedura arautzeko ordenantza. Beraz, ordenantza guzti hauek planean jaso behar dira.

Idazkariak, besteak beste, oinarri juridikoa eta aplikagarria den prozedura jaso du idatzitako txostenean eta kontu-hartzaileak osatutako araugintza planaren proposamena eraginkortasun, aurrekontu-egonkortasun eta finantzagarritasun printzipioak betetzeari egokitzen zaiola ondorioztatu du idatzitako txostenean eta horien baitan eta Ogasun, Kontu Berezien eta beste Gaien Batzordeak 2023ko otsailaren 21ean egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Oiartzungo udalaren 2023 urteko araugintza-plana onartzea, honako eduki honekin:

Izenburua	Oiartzungo udalerrian udal hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantza
Saila/azpisaila	Ingurumena
Berria/aldaketa	Aldaketa
Helburua	<p>Europako hainbat zuzentarau eta hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraua Estatuko ordenamenduan txertatzeko beharra zegoen. Zuzentarau horiek, besteak beste, ekonomia zirkularrean aurrerapausoak ematen zituzten, hierarkia-printzipioaren aplikazioa indartzen zuten tresna ekonomikoak nahitaez erabiliz, hondakinen prebentzioa indartzen zuten, ekoizlearen erantzukizun hedatuari buruzko baldintzak ezartzen zituzten, eta erabilera bakarrek plastikoei buruzko betebeharrak ezartzen zituzten.</p> <p>Premisa horretatik abiatuta, eta araudi hori barne ordenamenduan txertatzeko asmoz, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea onartu zen, orohar oinarritzko legeriaren izaerarekin. Aipatu Legeak 12.5 artikuluan ezartzen ditu toki-erakundeen eskumenak hondakinen arloan.</p> <p>Honenbestez, Udalak ordenantzaren bidez bere barne araudia egoki behar du Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeari, kontuan hartuz, udalak gai honetan dituen eskumenak (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 b), 26.1 a) eta 84. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. 8) 10 eta 17) artikulua eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1 b) zenbakia).</p>
Oharrak	2010eko otsailaren 24an onartutako hiri hondakinak bildu eta tratatzeko udal ordenantza indargabetzen du.

Izenburua	2024 urterako Oiartzungo Udaleko ordenantza fiskalen aldaketa
Saila/azpisaila	Kontu-hartzailletza
Berria/aldaketa	Aldaketa
Helburua	Udal tributuoak eta udalerrriaren eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik prezio publikoak berrikustea eta eguneratzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordenantza baino maila goragoko xedapenen aldaketetara edo berrikuntzetara egokitzeko.</li> <li>- Udal aurrekontuaren orekarako diru-sarrerren maila eguneratu edo aldatzeko.</li> <li>- Prozedura administratiboak eta zerga-kudeaketa arrazionalizatzeko</li> </ul>
Oharrak	2022ko urriaren 28an onartutako 2023 urterako udal ordenantza (2022/12/01eko 128 zenbakiko GAO) aldatzen du.

Izenburua	2024 ekitaldiko udal aurrekontua gauzatzeko araua
Saila/azpisaila	Kontu-hartzailletza
Berria/aldaketa	Aldaketa
Helburua	2024ko udal aurrekontuaren xedapen orokorrak erakundearen antolaketara eta inguruabarretara moldatzea eta kudeaketa zuzenerako behar diren moldaketak ere egitea.
Oharrak	2023 ekitaldiko udal aurrekontua gauzatzeko plana indargabetzen da

Izenburua	Hiri izaerako bide publikoen erabilera, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzen duen ordenantza
Saila/azpisaila	Udaltzaingoa
Berria/aldaketa	Aldaketa
Helburua	Trafikoa, zirkulazioa eta bide segurtasuna Oiartzungo hiri barruko bideetan antolatzea, kontrolatzea eta zaintzea, udal eskumenen barruan, segurtasuna areagotzeko eta istripu tasa jaisteko. <b>Indarrean dagoenarekiko aldaketaren arrazoiak:</b> Indarrean dagoen udal araudia araudi berriei egokitzea (besteak beste, azaroaren 10eko 970/2020 Errege Dekretua), bai eta udalerrriaren behar berriei egokitzea ere.
Oharrak	2004ko abenduaren 22an onartutako Oiartzun herrian hiri izaerako bide publikoetan erabilerak, trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautzeko ordenantza indargabetzen du.

Izenburua	Animalien edukitza eta babesari buruzko ordenantza
Saila/azpisaila	Udaltzaingoa
Berria/aldaketa	Aldaketa
Helburua	Oiartzungo udalerrian dauden etxeko animaliak, etxekotuak edo gatibu dauden basabereak babestu, izan, erakusgai ipini edo merkaturatzeko arauak ezartzea, zentsoan izan ez arren eta ugazaba edo jabeen egoitza edozein izan arren. Animalion eta pertsonen arteko elkarbizitza armonizatzea. Tratu, higiene, babes eta garraioari dagokionez animaliek behar duten gutxieneko zaintza zehaztea eta egoitza espezializatueta edukitzeko arauak ezartzea, osasun zaintzarako, merkaturatzeko eta salmentarako. <b>Indarrean dagoenarekiko aldaketaren arrazoiak:</b> egungo gizarte-egoerei eta ekainaren 30eko 9/2022 Legeari, etxeko animaliak babesteari buruzkoari egokitzea.
Oharrak	2004ko abenduaren 22an onartutako Oiartzungo udalerrian animaliak edukitzea eta babestea arautzen duen Ordenantza indargabetzen du.

Izenburua	Herritarren elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera eta garbiketa arautzen duen udal ordenantza
Saila/azpisaila	Udaltzaingoa
Berria/aldaketa	Aldaketa
Helburua	<p>Herritarren artean sortzen diren bizikidetzaz-azazoei irtenbidea eman nahi zaie, eta, horretarako, komunitatean elkarrekin bizitzeko arauak ezarri eta betetzen direla zaindu behar da, bakean, askatasunean eta eskubide eta betebeharrak berdintasunean gara daitezten. Horretarako, ordenantzak udalerriko biztanleen bizitza kolektiboa arautuko duten xedapenak artikulatzen ditu, elkartasunean eta elkarrekiko errespetuan. Bestalde, espazio publikoaren eta bertan instalatutako elementuen erabilera txarra saihestu nahi da, espazio publikoa baldintza egokietan mantentzen dela bermatzeko oinarrizko arauak ezarriz.</p> <p><b>Indarrean dagoenarekiko aldaketaren arrazoiak:</b> Indarrean dagoen udal araudia arau sektorial berriei, bai eta udalerriarren behar berriei egokitzea ere.</p>
Oharrak	2006ko otsailaren 23an onartutako Jokabide zibikoari buruzko eta bide eta eremu publikoen erabilera, okupazioa eta garbiketa arautzeko ordenantza indargabetzen du.

Izenburua	Energia elektrikoa, gasa eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioetako tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen ordenantza
Saila/azpisaila	Kontu-hartzaitza
Berria/aldaketa	Berria
Helburua	<p>Tokiko zergen arloko lege eta foru arauak jasotzen dute tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboa egiten duten edo haren aprobetxamendu bereziari onura ateratzen dioten edo onura horiek jasotzen ari diren pertsona fisiko edo juridiko, sozietate zibil, ondasun-erkidego eta gainerako entitateek kontzeptu horregatik petxa ordaindu behar dutela.</p> <p>Toki Ogasunen 11/1989 FAko 20.2k artikularen arabera, kasu honetan lurpean, lurpean edo hegalean egindako tokiko jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak osatzen dute tasaren zerga-egitatea: bide publikoetan edo udal jabari publikoko beste lur batzuetan ezarrita dauden edo horien gainean doazen energia, ura, gasa edo beste edozein fluido eramateko linea, hodi eta galeriak, linea, kable, horma-beso, ainguraketa-, banaketa- edo erregistro-kutxa, transformadore, errail, baskula, salmenta automatikorako aparatu eta antzeko beste batzuk garraiatzea barne.</p> <p>Aipatu petxa arautzeko Oiarzungo Udalak "energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen aldeko udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskala" onartu zuen 2017ko azaroaren 29an (2018/02/12ko 30 zk.ko GAO), baina Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2019/12/30ean eta Auzitegi Gorenak 2021/12/15ean gaiaren inguruan emandako epaiak eragina dute onartutako erregelamenduan eta horiei egokitu beharra dago.</p>
Oharrak	2017ko azaroaren 29an onartutako energia elektrikoa, gasa, ura eta hidrokarburoak garraiatzeko instalazioen aldeko udal-jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik tasa arautzen duen ordenantza fiskala indargabetzen du.

Izenburua	Oiarzungo udalerrian egingo diren planen eta proiektuen eragin linguistikoaren ebaluazioa (ELE) egiteko prozedura arautzeko ordenantza
-----------	--



Saila/azpisaila	Euskara
Berria/aldaketa	Berria
Helburua	Oiartzungo udalerrian egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan eta haiei baimena edo gaikuntza emateko prozeduretan, hizkuntza alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea eta euskararen erabilera normalizatzeko onuragarriak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea, eta ondorioz, neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean konpentsatzeko.
Oharrak	

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web orrian argitaratzea.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu / EAJ-PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu, EAJ/PNV).

- IV -

**OIARTZUNGO UDALERRIAN UDAL HONDAKINAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA.**

Europako hainbat zuzentarau eta hondakinei buruzko Esparru Zuzentaraua Estatuko ordenamenduan txertatzeko beharra zegoen. Zuzentarau horiek, besteak beste, ekonomia zirkularrean aurrerapausoak ematen zituzten, hierarkia-printzipioaren aplikazioa indartzen zuten tresna ekonomikoak nahitaez erabiliz, hondakinen prebentzioa indartzen zuten, ekoizlearen erantzukizun hedatuari buruzko baldintzak ezartzen zituzten, eta erabilera bakarreko plastikoei buruzko betebeharrak ezartzen zituzten.

Premisa horretatik abiatuta, eta araudi hori barne ordenamenduan txertatzeko asmoz, Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea onartu zen, orohar oinarritzko legeriaren izaerarekin.

Aipatu Legeak 12.5 artikuluan ezartzen ditu toki-erakundeen eskumenak hondakinen arloan, eta legeak baita ere jasotzen du toki-erakundeek beren ordenantzen bidez egokitzen dituzten hondakin-frakzio guztiak bereizita jaso behar dituztela, gutxieneko batzuk finkatuz.

Gauzak horrela, Udalak ordenantzaren bidez bere barne araudia egoki behar du Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeari, kontuan hartuz, udalak gai honetan dituen eskumenak (apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 b), 26.1 a) eta 84. artikulua eta Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. 8) 10 eta 17) artikulua eta lehenengo xedapen gehigarriaren 1 b) zenbakia).

Espedienteak Ingurumen Saileko teknikariaren txostena jaso du, Genero eraginaren ebaluazioa, Hizkuntza eraginaren txostena, eta udal idazkari eta kontu-hartzailearen aldeko txostenak. Horrez gain, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurreikusitako aurretiazko kontsultak burutu dira, ekarpenik jaso gabe.



Honenbestez, honako akordioa hartu du Udal Osoko Bilkurak:

Lehena.- Hasierako onespena ematea Oiartzungo udalerrian udal hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzeko ordenantzari, espedientean jasota dagoena.

Bigarrena.- Jendaurrean jartzea, hogeita hamar egun baliouduneko epean, administrazio-espediente hau, erreklamazio edo iradokizunen ondorioetarako, hain zuzen ere iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita. Epe horretan interesatu guztiek Udal bulegoetan espedienteaz aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako lekuetan eta moduetan.

Jendeari erakusgai egoteko epea igarotzen bada inolako erreklamaziorik edo oharpenik jaso gabe, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

Eneritz Arbelaitz zinegotzi andreak dio: *“Momentu hau aprobetxatu nahiko nuke irakurketa bat egiteko. Hain justu ere Oiartzunen 2010z geroztik apustu indartsua egin zen hondakinen kudeaketa hobetzeko eta gogoratuko duzuen bezala, Oiartzungo hondakinen gaikako bilketa %20 izatetik %80ra izatera pasa ginen.*

*Helburu bezala hartu genituen Europako Zuzentarauak eta horien arabera, hondakinen hierarkia printzipioak kontutan hartuta, dakizuen bezala, murrizketa, berrerabilpena, birziklapena, horiek kontuan hartuz Oiartzungo hondakinen bilketa sistema aldatu eta efizienteago bihurtu genuen. Orduz geroztik bilketan datu oso onekin gabiltza.*

*Orain, Lege berri hau etorri da eta gure Ordenantza Lege berri horretara egokitu behar izandu dugu baina oso poztekoa da Lege berri horretan aipatzen dituztelako neurri batzuk hartu beharrekoak hondakinen kudeaketa onerako. Hor aipatzen dute, hondakinen bilketa efizientea egiteko atez-ateko bilketa proposatzen dutela, hori modu bat da egindako lana ona izan dela berresten duena. Auto-konposatzea eta auzo-konpostatzea bultzatu behar dela jasotzen du... Beno, etxeko-lanak eginak harrapatzen gaitu gu. Murrizketa planak beharrezkoak direla, sortze bidezko ordainketak, ... dira lan-lerroak txertatzen ari ginenak gu hemen eta da modu bat egin dugun lana zoriontzekoa eta horrela segitzeko indarra ematen diguna.*

*Gure Ordenantzaren aldaketa oso gutxi dira. Estatutik datorren Lege bat da, besterik gabe, baino poza ematen digu ongi ari garela esaten duen beste lege bat delako.”*

Ondoren, Janire Mitxelena zinegotzi andreak hartu du hitza: *“Aurreko martxoaren leian Oiartzungo Udaleko ohiko batzarrean esan genuen bezala, hondakinen tratamendu eta bilketaren ordenantza aldatzea ongi eta beharrezkoa iruditzen zaigun arren, gure ustez, aurretik beste debate bat dago. Bere momentuan gure taldetik hondakinen inguruko batzorde bat osatzeko eskatu zen eta hori, ez da sortu eta dirudienez ez dago sortzeko asmorik. Horregatik, ordenantza aldatu aurretik, azterketa sakon bat egin behar dela eskatzen dugu. Gaur egun daukagun sistema bideragarria den edo ez jakiteko eta beste formula batzuk aztertuz. Adibidez, Beasainek duen formulak oso ongi funtzionatzen du eta emaitza oso onak ematen ari da. Goazen sistema egokiago, malguago eta merkeago bat aztertzerara.*

*Bestalde, Ordenantzaren aldaketa Espainia estatuko hondakinen lege berriagatik dela esan duzue. Oraindik lege hori ez dakigu nondik nora joango den, aldaketarik izango duen eta San Markos mankomunitatetik eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketatik ere ez dute legearen inguruko informazio*

*askorik. Ordenantzak azkar aldatu beharrean, goazen ongi aztertuta egitera. Horregatik, guztiagatik gu abstenitu egingo gara.”*

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	9	EHBildu
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>	4	EAJ-PNV

Beraz, gaia onartu egin da aldeko 9 botorekin (EHBildu) eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV).

- V -

**OIARTZUNGO EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA (ESEP) URTEBETEZ LUZATZEA (III PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2022)**

Udalak “Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) Oiartzunen. 2018-2022 aldirako III. Plan Estrategikoa” onartu zuen 2018ko martxoaren 28an.

Plan honen indarraldia agortuta, une honetan Eusko Jaurlaritzako hizkuntz Politikarako Sailburuordetza Euskara Sustatzeko Ekintza Plan (ESEP) berria ari da lantzen eta uda aurretik onartzea espero da. Hau kontuan hartuta, egoki ikusi da Oiartzungo IV. Plan Estrategikoa honen baitan diseinatzea.

Halaber, Euskara Saileko arduradunaren txostenaren baitan eta Euskara Batzordeak 2023ko otsailaren 23an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

“Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) Oiartzunen. 2018-2022 aldirako III. Plan Estrategikoa” urtebetez luzatzea, 2023ko abenduaren 31 arte, alegia.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- VI -

**MENDIBURU KALEA 14KO ZERBITZU ANITZEKO UDAL EKIPAMENDUKO 1. FASEAREN (ERAISPEN PROIEKTUA) ETA 3. FASEAREN (OINARRIZKO ETA GAUZATZE PROIEKTUA) LANEN KONTRATUAREN AZKEN OBRA ZIURTAGIRIA ETA LIKIDAZIOA ONARTZEA.**

Mendiburu kalea 14ko zerbitzu anitzeko udal ekipamenduko 1. fasearen (eraispin proiektua) eta 3. fasearen (oinarrizko eta gauzatze proiektua) lanak egiteko esleipena Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, S.L. enpresari egin zitzaion 5.536.337,80 € ko aurrekontuarekin (BEZ barne). Nahiz eta kontratua bakarra izan, bi proiektutan dago banatuta: batetik eraispina eta bestetik eraikuntza. Beraz, bi obra amaiera ditu, eta bi likidazio.

Udal arkitekto teknikoak bere txostenean jasotakoaren baitan, proiektuan proposatzen ziren lanetan hainbat gora behera izan dira, obra zuzendaritzaren txostenean argitu direnak.

Hori guztia kontutan izanda, hasieran neurtutako unitateak baino gehiago exekutatu behar izan dira. Lan horien gainkostua aintzat hartuta, likidazioa 6.078.898,88 €koa da (BEZ barne), aurrekontua baino 542.561,08 € gehiago, %9,80 gehiagokoa. Proiektu bakoitzaren ikuspuntutik, eraispenaren zatia aurrekontu berberarekin likidatu zen; exekuziokoa, aldiz, 542.561,08 € gehiago izan da, hau da, exekuzioren aurrekontua baino % 9,98 gehiago.

Aipatutako udal arkitekto teknikoaren txostenetik ondorioztatzen den bezala, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 242.4.i. artikuluari jarraiki, gainkostu honek ez du kontratu aldaketaren izaera, ez baitu horrela kontsideratzen neurketak gehiegizkoak izatea, halakotzat ulerturik obra behar bezala egiten den bitartean egiazki gauzatutako unitateen kopuruaren eta proiektuaren neurketetan aurreikusitako kopuruaren artean izaten den aldea, betiere orokorrean ez dutenean egiten hasierako kontratuko prezioaren ehuneko 10etik gorako gastu-igoera. Neurriak gehiegizkoak izate hori obra amaierako ziurtagirian jaso dira.

Guzti hau kontutan hartuta, Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak 2023ko otsailaren 8an egindako bilkuran emandako diktamenarekin adostasunean, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, S.L. enpresak aurkeztutako azken obra ziurtagiria onartzea.

Bigarrena.- Obra ziurtagirian jasotako azken kitapena, guztira 6.078.898,88 €ko likidazioa (BEZ barne) onartzea eta ordaintzea, dagokion faktura aurkeztutakoan.

Aipatu likidazioak hasierako esleipen prezioarekiko izan duen %9,8ko gehikuntza, 542.561,08 €-takoa, udal aurrekontuko 1 0102.622.920.00.02 2021 diru-atalaren kontura ordainduko da (A-331/2023).

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- VII -

**MENDIBURU KALEA 14KO ZERBITZU ANITZEKO UDAL EKIPAMENDUKO 1. FASEAREN (ERAISPEN PROIEKTUA) ETA 3. FASEAREN (OINARRIZKO ETA GAUZATZE PROIEKTUA) LANEN KONTRATUAN PREZIOEN SALBUESPENERAKO BERRIKUSPENA.**

Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2019ko urriaren 30an, izenburuan adierazitako kontratua Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, SL (EBA S.L.) enpresari esleitzea erabaki zuen. Horrela, kontratua 2019ko azaroaren 28an formalizatu zen.

2023ko urtarrilaren 18ko idatziaren bidez (erregistro orokorreko zk.: 2023-380), EBA, S.L. enpresak eskaera aurkeztu du martxoaren 1eko 3/2022 Errege Lege-Dekretuan zehazten den prezioak berrikusteko salbuespenezko mekanismo bereziaren baitan prezioak salbuespenez berrikusteko duen eskubidea onartzea eskatuz.

Zehazki honakoa dio: “3. eta 6/2022 LEDen arabera prezioen berrikuspena onartu eta berrikuspenera dagozkion indize gehienak argitaratu ondoren, 2022. urteko prezioen berrikuspenera gisa

*459.609,87 euroko zenbateko osoa ordaintzea. Kopuru hori 2023ko martxoaren 15a baino lehen aztertu eta ordaintzen bada, EBA.S.L.k uko egingo dio kontzeptu horrengatik dirurik erreklamatzeari [...].”*

Gaiari buruz udal arkitekto teknikoak eta kontratazio arduradunak egindako txostenen baitan, 2023ko otsailaren 8an egindako bilkuran Obra eta Zerbitzuak Batzordeak aldeko diktamena eman dio eskaerari. Beraz, guzti hau kontutan hartuta, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, S.L. enpresaren eskaera onartzea eta, ondorioz, “Mendiburu kalea 14ko zerbitzu anitzeko udal ekipamenduko 1. fasea: eraispn proiektua eta 3. fasea: oinarrizko eta gauzatze proiektuaren lanak” kontratuaren prezioa 3/2022 Errege Lege Dekretuaren II. Tituluaren baitan salbuespenez berrikustea 2022eko urtarriletik 2022ko azarora bitarteko aldirako, Eraikuntza Birgaikuntza Artapena, S.L. enpresari 459.609,87 euro (BEZa barne) ordainduz. Zenbateko hori beherantz zuzendu ahalko da kontratuaren likidazioan, berrikuspena aplikatu den aldiari dagozkion behin betiko indize ofizialekin, ondoriozko kopurua ordaindutakotik jaitsiko balitz.

Aipatu kopurua 2021 eta 2022 ekitaldietako 1 0102.622.920.00.02 2021 diru-atalaren kontura ordainduko da (A 207/2023 eta A 2005/2022), dagokion faktura aurkeztutakoan.

Bigarrena.- Prezioen salbuespenezko berrikuspen honen ondorioz ez da beharrezkoa izango behin betiko bermea egokitzea.

Alkate jaunak honakoa argitu du: *“Bi puntu hauek eta diru-kopuru hauek nondik datozen argitu nahi ditut. Seigarren puntuan aipatu dugu obraren likidazioa, dakizuen bezala, obra osoak aurrekontu bat du eta likidazioa egiterakoan benetako kostua ikusten da. Likidazioa aldatzen da askotan neurketa okerren arabera, edo aurreikusitako ziren elementu batzuk gertatu direlako obran eta obra hori garestitzea ekartzen dute. Nahiko ohikoa da likidazioa aurrekontua baino altuagoa izatea; kontratazio legeak mugatzen gaitu, beti ere, esleitutako prezioa baino %10a baino gehiago ezin duela igo obraren exekuzioak, bestela lizitatzera ateratu behar dugu. Horri erantzuten dio lehengo puntuak.*

*Obra honen ezaugarriak ikusita, eta batez ere teknikariak, obrakoek eta udalekoek egindako txostenekin justifikatzen da, argi eta garbi gailuzko hori izan dela. 542.000 euroko gailuzko egon dela benetan obra honetan. Horra arte, gailuzko bat izan dezakegula ulertu daiteke.*

*Orain, bozkatzera goazen puntu honi dagokionez, Madrilen etorri zaigun Errege Dekretu bati erantzuten dio: KPIaren igoera handiak zirela eta, kontratu publikoetan taula bat aplikatu behar da, formula matematiko batzuekin, obra publiko guztietan igoera bat ematen duena. Justifikaziorik gabe eta beste ezer gabe. Kasu honetan EBAk aurkeztu du eskaera eta aplikatu behar diogu gastu guztiari formula matematikoa eta horrek emaitza bat ematen du. Hori da KPIaren igoera hori zuzenduko lukeen formula. Guk, udal bezala, formula hori aplikatu egin behar dugu, bai hala bai, enpresari justifikaziorik eskatu gabe, legez dagokio. Kontzeptu horretan enpresari 400.000 euro dagozkie.*

*Esan behar dugu enpresarekin izan ditugun elkarrizketetan taula horietan aplikatzen zen kopurua 400.000 euro baino dezente gehiago ateratzen bazen ere, akordio batetara iritsi eta kopuru horretan ixtea adostu dugula.*

*Obraren lizitazio prezioa hasieran 6.500.000 eurokoa zen, EBAk bereganatu zuen obra 5.500.000 eskaintzarekin eta gailuzko eta aipatu Dekretua dela eta hasierako preziora bueltatzen gara.*

*Hori izan da ibilbidea.”*

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzia</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- VIII -

### LANDETXEKO TABERNA-JATETXEAREN OSTALARITZA ZERBITZUA KUDEATU ETA USTIATZEKO EMAKIDA KONTRATUAREN ESLEIPENA ONARTZEA.

2023ko urtarrilaren 13an Osoko Bilkurak “Oiertzungo zerbitzu anitzeko Landetxe udal eraikineko taberna-jatetxea zerbitzu emakida bidez kudeatzeko kontratatzeke” espedientea onartzea eta hasia erabaki zuen, prozedura irekiaren bitartez eta premiazko izaeraz. Akordio berean onartu zen kontratua araupetzeko baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agiria, baldintza teknikoaren agiria eta baita gastua ere.

Udalaren kontratatzailearen profileen argitaratu zen iragarkia eta 3 interesdunek aurkeztu zituzten euren proposamenak ezarritako epemuga baino lehen, halaber, Unai Odriozola Monreal, Oiertzungo eta Asier Gaston Aldezabalek.

2023ko otsailaren 6ko alkate Dekretuz erabaki zen onartzea kontratazio mahaiak Unai Odriozola Monrealen alde egindako esleipen proposamena, hau da, hari esleitzea Oiertzungo zerbitzu anitzeko Landetxe udal eraikineko taberna-jatetxea zerbitzu emakida bidez kudeatzeko kontratua, eskaintzen balorazio hurrenkeran lehen sailkatua izan zelako.

Halaber, errekerimendua egin zitzaion Odriozola jaunari 10 egun balioduneko epean baldintza ekonomiko-administratibo zehatzen agirian zerrendatutako dokumentazioa aurkez zezan: nortasuna; ordezkari; zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean egotea; kontratatzeke eduki beharreko enpresa sailkapena, kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa; eta behin betiko bermea eratu izana egiaztatzeke.

2023ko otsailaren 20an errekerimenduari erantzun dio lizitatzailleak dokumentazioa aurkeztuz.

Beraz, dokumentazioa aztertuta, kontratazioko teknikariak egindako txostenaren baitan eta Obra eta Zerbitzuak Batzordeak 2023ko otsailaren 22an egindako bilkuran emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, honako akordioa hartu du Udaltzatza:

Lehen.- Esleitzea Unai Odriozola Monreali Oiertzungo zerbitzu anitzeko Landetxe udal eraikineko taberna-jatetxea zerbitzu emakida bidez kudeatzeko kontratua, ondoko zehaztapenekin:

- Kanona: 26.400 euro/urtean.
- Epea: 2 urte, urtez urte luzagarria 4 urte arte.
- Kontratua aurkeztutako eskaintzan eta prozedura arautu duten administrazio-baldintza zehatzen agiritan, eta espedientean zehaztutako gainerako aukerako baldintzen arabera beteko du.

Bigarrena.- Ebazpen honen dagozkion jakinarazpenak eta argitalpenak egitea, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 151.artikuluarekin adostasunean.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- IX -

**OIARTZUNGO UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZU-KONTRATUAREN LUZAPENA.**

Udal Osoko Bilkurak 2022ko otsailaren 23an egindako batzarrean, Oiartzungo udal eraikinen garbiketa zerbitzua kontratua Limpieza y Mantenimiento Impacto, S.L.U. enpresari esleitzea erabaki zuen, ohiko zerbitzuari dagokionez, urteko 420.516,25 € prezioan (BEZ gabe), 508.824,66 € BEZarekin. Kontratua 2022ko martxoaren 28an formalizatu zen.

Bestalde, kontratuaren iraupen osoa urte batekoa ezarri zen, kontratua formalizatu eta hurrengo egunean hasiko zena. Horrez gain kontratuaren hiru (3) luzapen aurreikusi ziren, bakoitza urte batekoa.

2023ko otsailaren 3an esleipendunak kontratua beste urte batez luzatzeko adostasuna adierazi du.

Horregatik guztiagatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak aurreikusten duen prozedura jarraiki eta honek kontratazio-organoari esleitzen dizkion eskumenekin bat, udal arkitekto teknikoak eta kontratazio teknikariak luzapenaren alde egindako txostenen baitan eta Obra eta Zerbitzuak Batzordeak 2023ko otsailaren 8an emandako aldeko irizpena jaso eta gero, Osoko Bilkurak honako akordioa hartu du:

**Lehena.** Onartzea Oiartzungo udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratuaren luzapena, beste urtebetez, 2023ko martxoaren 29tik 2024ko martxoaren 28ra arte, baldintza eta ezaugarri berdinetan.

**Bigarrena.** Gastu hori Udalaren aurrekontuko honako partida hauen kontura kontabilizatuko da:

- 1 0102.227.920.00.01.2023
- 1 0103.227.929.00.01.2023
- 1 0501.227.162.20.10.2023
- 1 0502.227.153.40.10.2023
- 1 0502.227.153.40.11.2023
- 1 0602.227.323.00.01.2023
- 1 0602.227.324.00.01.2023
- 1 0604.227.323.02.01.2023
- 1 0701.227.335.00.10.2023
- 1 0801.227.334.00.02.2023
- 1 0803.227.330.00.10.2023
- 1 0901.227.170.00.04.2023
- 1 1001.227.230.00.01.2023
- 1 1101.227.337.20.10.2023
- 1 1102.227.342.00.01.2023

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzia</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- X -

## OIARTZUNGO UDAL ERAIKINEN GARBIKETA ZERBITZU-KONTRATUAREN ALDAKETA.

Udal Osoko Bilkurak 2022ko otsailaren 23an egindako batzarrean, Oiertzungo udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua Limpieza y Mantenimiento Impacto, S.L.U. enpresari esleitzea erabaki zuen, ohiko zerbitzuari dagokionez, urteko 420.516,25 € prezioan (BEZ gabe), 508.824,66 € BEZarekin. Kontratua 2022ko martxoaren 28an formalizatu zen.

Bestalde, Udalak zerbitzu anitzeko Landetxe udal eraikina eraiki berri du (2023ko martxoaren 10ean dago aurreikusia irekiera), eta horren garbiketa egin behar da, honek Oiertzungo Udal eraikinen garbiketa zerbitzu-kontratua aldatzeko beharra dakarrelarik.

2023ko otsailaren 6an udal arkitekto teknikoak txostena egin du kontratuaren aldaketa justifikatuz eta kontu-hartzaileak kontratua egiteko gastuaren baimena eman du.

Arkitekto teknikoaren txostenetik ondorioztatzen den moduan, kontratuaren aldaketa-mota hori aurreikusita dago baldintza administratibo berezien agirian, ez du hasierako prezioaren %20a gaintitzen, ez dira aurreikusi gabe dauden banakako prezioak ezartzen, eta aldaketaren banakako prezioak esleipendunaren hasierako eskaintzaren baldintzetan sartzen dira, beherapena kontuan izanda.

Halaber, SPKLaren 207. artikuluari eta baldintza administratibo berezien agiriaren 21.3. klausulari jarraiki, baldintza horiek errespetatzen dituen aldaketak zuzenean nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat.

Guzti hau kontutan hartuta, kontratazio teknikariaren txostenaren baitan, Obra eta Zerbitzuak batzordeak 2023ko otsailaren 8an aldeko diktamena eman dio kontratuaren aldaketari, beraz, Udal Osoko batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Limpieza y Mantenimiento Impacto, S.L.U. enpresari esleitutako Oiertzungo udal eraikinen garbiketa zerbitzu-kontratatuaren aldaketa onartzea, eraiki berri den zerbitzu anitzeko Landetxe udal eraikina garbitzeko, espedientean agertzen den dokumentazioan azaldutakoaren arabera eta, bereziki, honako baldintzetan:

- Aldaketaren ondoriozko kostu gehigarria: urtean 84.002,76 € (BEZa gabe), 101.643,34 € BEZa barne.
- Aldaketa indarrean sartzea: 2023ko martxoaren 10.
- Egin beharreko **gehitutako lanak**:

1) 0 eta -1. SOLAIRUAK: AUDITORIO

Astelehena, osteguna, larunbata eta igandea.

Solairu osoa garbitu behar da: korridoreak, eskailerak, atondoa, agertokia, besaulki-gunea edo horrelakorik gabeko barrutia, komunak, aldagelak, entsegu-aretoa, biltegiak, etab.



-1 solairuaren azalera: 752 m<sup>2</sup> erabilgarri.

0 solairuaren azalera: 350 m<sup>2</sup> erabilgarri

Bi pertsona, 5 ordu/egunean. Bat garbigailua 3,5 edo 4 orduz erabiltzen, eta gainerakoa garbitzen. Bestea garbitzen. 40 ordu astean.

2) 1. SOLAIRUA: ERRETIRATUEN LOKALA ETA EREMU KOMUNAK (ATONDOA, ESKAILERA, KOMUNAK)

Astelehena, asteazkena eta ostirala.

Solairu osoa garbitu behar da (tabernaren zatia izan ezik): atondoa, eskailera, erretiratuen lokala.

1. solairuaren (eremu komunak eta erretiratuen lokala) azalera = 280 m<sup>2</sup> erabilgarri

Pertsona bat, 2 ordu/egunean, barruko kristalak eta eremu guztiak garbitzea barne. 6 ordu astean.

3) 2. SOLAIRUA: EUSKARA + KULTURA +AEK + UEMA + TTUR TTUR + IRRATIA + EREMU KOMUNAK (ATONDOA, KOMUNAK ETA ESKAILERA).

Bi eremutan banatuko dugu:

1) Euskara, kultura, AEK, UEMA, Ttur Ttur eta irratia:

Astelehen eta osteguna.

Azalera erabilgarria: 350 m<sup>2</sup>

Pertsona bat, 3 ordu/egunean, espazio eta barneko kristal guztiak eginez. 6 ordu astean.

2) Eremu komunak (atondoa, komunak eta eskailera)

Astelehena, asteazkena eta ostirala

Azalera erabilgarria: 161 m<sup>2</sup>

Pertsona bat, 2 ordu/egunean, barruko kristalak eta eremu guztiak garbitzea barne. 6 ordu astean.

EGIN BEHARREKO LANAK HAUEK DIRA

Eguneroko mantenua:

- Gela eta korridore guztien lurra erraztatu.
- Gela guztietako paper-ontziak eta hautsontziak edo antzekoak hustu eta garbitu.
- Mahaietatik hautsa kendu eta garbitasuna bukatu eta gero mahai eta aulkiak txukun-txukun utzi.
- Komunak, komunetako tresneria eta zola erraztatu, garbitu eta desinfektatu.
- Gela eta korridore guztietako zola garbitu.

Astean hirutan egin beharreko mantenua:

- Gainontzeko tresneriaren hautsa kendu.
- Sarrera nagusietako kristalak erreparatu.

Hamabosteroko mantenua:

- Barruko kristalak garbitu.
- Komunetako azulejoak garbitu.

Hiru hileroko mantenua:

- Kanpoko kristalak garbitu.
- Paretak, sabaiak, fluoreszenteak eta argi-puntuak garbitu.

Bigarrena.- 101.643,34 euroko (BEZ barne) gastu gehigarria onartzea, kontratuaren aldaketaren ondorioz prezioan izan duen eraginagatik.

Gastu hori Udalaren aurrekontuko partida hauen kontura kontabilizatuko da:

- 1 0801.227.333.00.01 2023 (5098) - *Kontratazioa: garbiketa Mendiburu 14; A 296 – 2023.*
- 1 1003.227.337.10.98 2023 (3461) - *Kontratuak; A 297 – 2023.*
- 1 0701.227.335.00.10 2023 (4031) - *Kontratuak: garbiketa; A 298 - 2023*

Hirugarrena.- Kontratu-aldaketa honi dagozkion legezko argitalpenak egitea.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- XI -

**2023. URTEAN GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZA ESKAERAK EMATEKO IRIZPIDEAK ONARTZEA ETA DEIALDIA EGITEA.**

2023ko urtarrilaren 31ean Jaurlaritzaren Kontseiluak Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Agindua onartu zuen, besteak beste, 2023 urtean dirulaguntzak estaliko lituzkeen onuradunen gastu espezifikoak eta gehieneko zenbatekoak ezartzeko. Halaber, entitatearen gastua ordaintzeko esleitutako kredituak banatzeko irizpideak zehaztu eta aurrekontu-muga ere finkatzen du.

Horrela, xede honetarako Eusko Jaurlaritzak Oiarzun udalerrira 93.825,00 €-tako kopurua bideratu du.

Horrenbestez, Gizarte Zerbitzuetako arduradunak Oiarzungo udalerrian 2023an Gizarte Larrialdietarako Laguntzak emateko irizpideak idatzi ditu.

Aipatu irizpideak Gizarte Ongizate Batzordeak 2023ko otsailaren 15ean egindako bilkuran aztertu ditu eta aldeko irizpena jaso dute.

Guzti hau kontutan hartuta, Udal Osoko Batzarrak honako akordioa hartu du:

Lehena.- 2023 urtarrilaren 31ko Jaurlaritzaren Kontseiluak emandako Aginduaren baitan xedatutako irizpideekin bat eta Udalak murrizketarik aplikatu gabe, Oiarzungo udalerrian 2023an gizarte larrialdietarako laguntzak emateko irizpideak, eranskinean jasotakoak, onartzea.

Bigarrena.- Aipatu dirulaguntzak esleitzearen ondoriozko gastua udal aurrekontuko 1 1001 480 231 30 01 2023 diru-atalean kontabilizatu da (A 351-2023).

Hirugarrena.- Dirulaguntzak eskatzeko deialdia irekitzea. Irizpideak BDNS plataformaren bidez eta udal web orrian argitaratuko dira. Indarraldia urtekoa (2023) izango da eta deialdia urte osoan irekita egongo da.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

OIARTZUNGO IKASTETXEEI 22/23 IKASTURTEKO E1 ESKOLA KIROLA, ESKOLA PILOTA, MUITTU! ETA ESKOLA ORDUGAINEKO EKINTZEN KOORDINAZIO EGITASMOAK SUSTATZEKO HITZARMENAK SINATZEA ETA DIRULAGUNTZA EBAZTEA.

Oiartzungo ikastetxeek dirulaguntza eskaera egin diote Udalari, 22/23 ikasturteko E1 Eskola Kirola, Eskola pilota, Muittu! eta eskola ordugaineko ekintzen koordinazio egitasmoak sustatzeko.

Horiek aurrera eramateko, Gazteria eta Kirola Saileko arduradunak proposatu du eskaerak onartzea, eta diru-laguntzak xedatzea Udala eta herriko bi ikastetxeen arteko lankidetzaren bidez.

Gazteria eta Kirola Batzordeak 2023ko otsailaren 23an aztertu du gaia eta aldeko irizpena eman dio.

Guzti hau kontutan hartuta honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- Haurtzaro Ikastola eta Elizalde Guraso Elkartearekin, eskola kiroleko hainbat egitasmoen kalitatea sustatu nahian, eranskin modura espedientean barneratutako hitzarmenak onartzea eta hauei lotutako dirulaguntzak onartzea eta ordaintzea:

<b>HAURTZARO IKASTOLA</b>		
E1 Eskola Kiroleko egitasmoa kirol entrenatzaileen kontrataziorako		13.580,65 €
Eskola Pilotako entrenatzaileen kontrataziorako		9.340,58 €
Aurrebenjaminak – Muittu! egitasmorako		2.638,82 €
Extraeskolaren koordinatzailearen kontrataziorako		8.370,47 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>33.930,52 €</b>
<b>ELIZALDE GURASO ELKARTEA</b>		
E1 Eskola Kiroleko egitasmoa kirol entrenatzaileen kontrataziorako		11.838,05 €
Extraeskolaren koordinatzailearen kontrataziorako		7.006,86 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>18.844,91 €</b>

Udal aurrekontuko 1102.481.326.00.05 2023 (A-468/2023) eta (A-469/2023) diru-atalen kargura egingo da ordainketa, bi epetan: %70a eskaera egitean eta %30a gastuak justifikatzean.

IKASTETXEA	100%	70%	30%
<b>HAURTZARO IKASTOLA</b>	33.930,52 €	23.751,36 €	10.179,16 €
<b>ELIZALDE GURASO ELKARTEA</b>	18.844,91 €	13.191,44 €	5.653,47 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>52.775,43 €</b>	<b>36.942,80 €</b>	<b>15.832,63 €</b>

Lankidetzaren hitzarmenek 2023ko abuztuak 15 arteko indarraldia izango dute.

Bigarrena.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatu hitzarmenak eta beharrezkoak izan litezkeen beste dokumentuak sinatzeko.

**Botazioa:**

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- XIII -

OIARTZUARREN BAITAN, TXERRI EGUNA, EUSKARA ELKARTERA, MOTIBAZIO SAIOAK GAZTEENTZAT ETA KUADRILLATEGI PROGRAMAK GAUZATU AHAL IZATEKO UDALA ETA TTUR-TTUR EUSKALTZALEON BILGUNEAREN ARTEKO 2019-2022 TARTERAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ARABERA, 2022KO MEMORIA ETA KITAPENA AURKEZTU ETA ONARTZEA.

Kuadrillategi egitasmoa, motibazio saioak DBH 3 eta 4. mailatan, Oiertzuarren Baitan ahozko ondarea jasotzeko egitasmoa, Txerri Eguna eta Euskara Elkartera (Euskaraldia ekimenaren baitan azken urteotan) egitasmoa gauzatu ahal izateko, Ttur-Ttur Euskaltzaleon Bilgunea KErekin sinatutako hitzarmena indarrean izan da 2019ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra, biak barne.

2023ko otsailaren 14an 2022 urteari dagokion memoria, diru kontuen balantzea eta zuriketa aurkeztu ditu Ttur-ttur EBk. Kitapen honen baitan 16.564,54 euroko soberakina izan du elkarteak.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta Euskara Saileko arduradunak ontzat eman du eta horrela jaso du egindako txostenean. Beraz, Euskara Batzordeak, 2023ko otsailaren 23an egindako bilkuran, emandako aldeko diktamenaren baitan, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilguneako arduradunak aurkeztu duen 2022ko balantze ekonomikoa onartzea.

Bigarrena.- 2022ko jardunaren kitapenaren baitan izan den 16.564,54 euroko soberakina Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilguneak Oiertzungo Udalari itzultzea 30 eguneko epean.

Hirugarrena.- 2019-2022 tarterako onartutako hitzarmenari amaiera ematea.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- XIV -

UDALA ETA HITZ HOTS KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO 2019-2022 TARTERAKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ARABERA, 2022KO MEMORIA ETA KITAPENA AURKEZTU ETA ONARTZEA.

Udalak euskararen sustapen eta normalizazioaren lanketan, herriko komunikabide euskalduna izanda, Hitz Hots Kultur Elkartearekin hitzarmena sinatzea eta egitasmoa burutzeko urtero beharrezkoa den ekarpen ekonomikoa egitea erabaki zuen, Osoko Bilkuraren 2019ko otsailaren 27ko akordio bidez.

Hitzarmen honen iraupena lau urtekoa izan da (2019ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra, biak barne).

Hitzartutakoaren baitan, Hitz Hots kultur Elkartek 2022ko balantzea eta kitapen proposamena aurkeztu ditu 2023ko otsailaren 6ko 2023/901 sarrera data duen eskaerarekin batera. 2022ko jardunaren kitapenaren baitan, 195,55 euroko soberakina izan du 2022an Hitz Hots Kultur Elkartek.

Aurkeztutakoa aztertu eta gero oniritzia eman dio Euskara Saileko arduradunak gaiari buruz egindako txostenean eta Euskara Batzordeak 2023ko otsailaren 23an egindako bilkurak aldeko irizpena eman dio egindako proposamenari.

Guzti hau kontutan hartuta, honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- Hitz Hots Kultur Elkarteko lehendakariak aurkeztu duen 2022ko balantze ekonomikoa onartzea.

Bigarrena.- 2022ko jardunaren kitapenaren baitan izan den 195,55 euroko soberakina Hitz Hots Kultur Elkartek Oiartzungo Udalari itzultzea 30 eguneko epean.

Hirugarrena.- 2019-2022 tarterako onartutako hitzarmenari amaiera ematea.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- XV -

OIARTZUNGO AHOZKO ONDAREA JASOTZEKO “OIARTZUARREN BAITAN” EGITASMOA GAUZATU AHAL IZATEKO UDALA ETA TTUR-TTUR EUSKALTZALEON BILGUNEA KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.

2022ko abenduaren 31n iraungi zen TTUR-TTUR Euskaltzaleon Bilgunea Kultur Elkartea irabazi-asmorik gabeko erakundea eta Udalaren arteko 2019-2022 aldirako hitzarmenaren indarraldia. Halaber, Oiartzungo hizkera jasotzeko eta hedatzeko helburua duen egitasmoari jarraipena emateko lankidetzahitzarmen berri bat onartzea egoki ikusi da.

Espedientean arduradun politikoaren justifikazio-memoria eta idazkaria eta kontu-hartzailearen txostenak jaso dira, denak aldekoak.

Honenbestez, 2023ko otsailaren 23ko Euskara Batzordearen aldeko irizpenarekin, honako akordioa hartu du Udal Osoko Bilkurak:

Lehena.- Oiartzungo Udalaren eta TTUR-TTUR Euskaltzaleon Bilgunea Kultur Elkarteen arteko lankidetzahitzarmena onartzea (eranskinean jaso da).

Bigarrena.- TTUR-TTUR Euskaltzeon Bilgunea Kultur Elkarteari (IFZ G-20883047) 48.700,00 euroko dirulaguntza ematea, udalerrian euskara sustatze aldera Oiartzungo hizkera jasotzeko eta hedatzeko helburua duen “Oiartzuarren Baitan” egitasmoari jarraipena emateko. Dirulaguntza hori bi aldeek sinatutako lankidetzaz hitzarmenean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera ordainduko eta justifikatuko da.

Hirugarrena.- 48.700,00 euroko gastua konprometitzea eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 1 0701.481.335.00.05 2023 partidari egozte (AD 453/2023), eta honako bi epetan ordaintzea:

1. zatia: % 50, urtearen lehen hiruhilekoan. Beraz, 24.350,00 €.
2. zatia: % 50, urtearen hirugarren hiruhilekoan. Beraz, 24.350,00 €.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- XVI -

**OIARTZUNGO UDALA ETA HITZ HOTS KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA.**

2022ko abenduaren 31n iraungi zen 2019-2022 aldirako Oiartzungo Udalaren eta Hitz Hots Elkartearen arteko hitzarmenaren indarraldia eta Saileko arduradun politikoak eta teknikoak hitzarmen berria egiteko egokitasuna eta beharra ikusi dute.

Hitzarmen berriaren xedea da Hitz Hots Kultur Elkarteari dirulaguntza ematea udalerrian euskara sustatzeko, besteak beste, euskarazko komunikabideak sustatuz, garatuz eta herritarren zerbitzura jarritz, eta irratia bidez udal jardura zabalduz.

Espedientean arduradun politikoaren justifikazio-memoria, hizkuntza normalizaziorako teknikariaren txostena, eta idazkaria eta kontu-hartzailearen txostenak jaso dira, denak aldekoak.

Honenbestez, 2023ko otsailaren 23an egindako bilkuran Euskara Batzordeak emandako aldeko diktamenarekin adostasunean, honako akordioa hartzeko proposamena egiten zaio Udal Osoko Bilkurari, onar dezan:

Lehena.- Oiartzungo Udalaren eta Hitz Hots Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena onartzea (eranskinean jaso da).

Bigarrena.- Hitz Hots Elkarteari (IFZ G-20810677) 67.000,00.- euroko dirulaguntza ematea, udalerrian euskara sustatze aldera euskarazko komunikabideak sustatu, garatu eta herritarren zerbitzura jartzeko, eta irratia bidez udal jardura zabaltzeko helburuetarako. Dirulaguntza hori bi aldeek sinatutako lankidetzaz hitzarmenean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege horren erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera ordainduko eta justifikatuko da.

Hirugarrena.- 67.000,00.- euroko gastua konprometitzea eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 1 0701.481.335.00.03 2023 (AD 415-2023) partidari egozte, eta honako bi epetan ordaintzea:

1. zatia: % 50, urtearen lehen hiruhilekoan. Beraz, 33.500,00 €.
2. zatia: % 50, urtearen hirugarren hiruhilekoan. Beraz, 33.500,00 €.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzia</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- XVII -

2023AN OIARTZUNEN AURREIKUSITAKO KULTUR EKITALDIAK ANTOLATZEKO HERRIKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK BANATZEKO GASTUA ONARTZEA ETA LEHEN ZATIA ORDAINTZEA.

2022ko abenduaren 20ean onartu zituen Udal Osoko Bilkurak “2023 urtean Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko diru laguntzak banatzeko oinarriak”, dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza eta 2022-2024 eperako dirulaguntzen plan estrategikoaren baitan.

Horrela, eskaerak aurkezteko epea ireki zen urtarrilak 1etik 31a arte eta epe horretan 24 ekintza-proposamen erregistratu dira.

Eskaerak aztertuta, Kultura saileko arduradunak ekintzak oinarrietan jasotako irizpideen baitan puntuatu ditu eta horrela, dirulaguntzaren banaketa proposamena osatu du.

Kultura Batzordeak 2023ko otsailaren 24ean egindako bilkuran aldeko irizpena eman dio proposamenari, beraz, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Lehena.- 2023an Oiartzunen aurreikusitako kultur ekitaldiak antolatzeko dirulaguntzak herriko elkarteei banatzea eta ordaintzea saileko teknikariak eginiko proposamenaren baitan, honako taulan jasotzen den moduan:

	<b>EKINTZA</b>	<b>Puntuak guztira</b>	<b>Eskatutakoa</b>	<b>Laguntza</b>	<b>Diferentzia</b>
1	MADDI NAZABAL: OIHARTZUN FILOSOFIKOA	32	700,00 €	700,00 €	0,00 €
2	RAKETISTAK KIROL ELKARTEA	34	700,00 €	700,00 €	0,00 €
3	OIDULTZ ELKARTEA	63	3.000,00 €	2.594,30 €	405,70 €
4	MYRIAN UNZUETA ARTISAUTZA	37	1.475,00 €	1.475,00 €	0,00 €
5	MARTZELINA BERTS ELKARTEA	56	6.829,00 €	2.306,04 €	4.522,96 €
6	OIARTZUNGO ORGANOZALEAK	82	3.000,00 €	3.000,00 €	0,00 €



7	OIARTZUNGO ANTZERKIZALEAK: GAU BELTZA	59	5.105,00 €	2.429,58 €	2.675,42 €
8	KU KU LITERATUR ELKARTEA	64	9.051,00 €	2.635,48 €	6.415,52 €
9	OLENTZERO LAGUNTAILEAK	72	4.210,00 €	2.964,91 €	1.245,09 €
10	GAIZKA GARCIA: SAGARDO EGUNA	56	4.700,00 €	2.306,04 €	2.393,96 €
11	IBARGAIN MUSIKA ESKOLA	60	3.710,00 €	2.470,76 €	1.239,24 €
12	ELIZALDEKOAK GURASO ELKARTEA	58	1.937,00 €	1.937,00 €	0,00 €
13	MUNANIER ELKARTEA	72	3.000,00 €	2.964,91 €	35,09 €
14	AIA ELKARTEA	59	3.254,00 €	2.429,58 €	824,42 €
15	KANTAGILTZA ELKARTEA	32	1.150,00 €	1.150,00 €	0,00 €
16	METROKOADROKA: 21 AULKI	31	2.900,00 €	1.276,56 €	1.623,44 €
17	METROKOADROKA: GEZI BELTZAK	36	1.400,00 €	1.400,00 €	0,00 €
18	1545 LITERATURA (X.SALABERRIA)	52	7.500,00 €	2.141,33 €	5.358,67 €
19	AZMARRIN (X.SALABERRIA)	32	3.400,00 €	1.317,74 €	2.082,26 €
20	ALAIN MENDIZABAL OIARTZUAROCK	49	1.500,00 €	1.500,00 €	0,00 €
21	LABORE: UNITATE DIDAKTIKO LANDU	39	1.920,00 €	1.605,99 €	314,01 €
22	LABORE: LIBURU AURKEZPENA	24	360,00 €	360,00 €	0,00 €
23	LARTAUN ABESBATZA: KONTZERTUA	20	720,00 €	720,00 €	0,00 €
24	ELIZALDE ESKOLA: BERTSO BAZKARIA	21	1.000,00 €	864,77 €	135,23 €
		1140	72.521,00 €	43.250,00 €	

Bigarrena.- Diru laguntza hauek ordaintzeko, guztira, 43.250,00.- € euroko gastu-onarpena egitea, Oiarzungo Udalaren 2023 urteko aurrekontuko 1 0801.481.334.00.01.2023 zenbakidun partidaren kontura (A-476/2023).

Hirugarrena.- Oinarriek ezarri bezala, txostenean adierazitako lehen ordainketak onarpen honekin egitea (%80ari dagokiona, hau da 34.600 €) eta gainerakoa (% 20ari dagokiona, hau da, 8.650 €) interesatuek gastuak justifikatu ondoren ordaintzea.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

Haurtzaro Ikastola eta Oiartzungo Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena 2018ko urtarrilaren 8an sinatu zen, lau urteko iraupenarekin (2018-2021) eta 2021eko abenduaren 22an beste lau urtez luzatzea erabaki zen, aurrekoarekiko termino berdinetan (2022-2025).

Haurtzaro Ikastolak 2023ko urtarrilaren 16an aurkeztutako idatziaren bidez mantenu gastuen aurreikuspena aldatu dela dio, Hezkuntza Saitetik jasotako dirulaguntza baten ondorioz eta hitzarmena aldatu beharra dago, mantenu gastuen zenbatekoa aldatzeko.

Horrenbestez, hitzarmena aldatzeko biderapenak hasi dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan administrazio-hitzarmenentarako aurreikusitako erregulazioaren arabera. Horrela, espedientean justifikazio-memoria eta idazkariaren eta kontu-hartzailearen txostenak jaso dira.

Guzti hau kontutan hartuta, aipatu txostenen baitan, Ogasun, Kontu Berezien eta hainbat gaien Batzordeak 2023ko otsailaren 7an egindako bilkuran aldeko diktamena eman dio gaiari eta honako akordioa hartu du Udalbatzak:

Lehena.- Haurtzaro Ikastolak eta Oiartzungo Udalak 2018ko urtarrilaren 8an sinatutako eta 2021eko abenduaren 22an Udal Osoko Bilkurak beste lau urtez luzatutako lankidetzaren hitzarmenaren bigarren aldaketa onartzea.

Bigarrena.- Lankidetzaren hitzarmenaren 1.1.c) atala aldatzea, eta horrela jasotzea: “Udalak ikasturteko emango duen gehieneko zenbatekoa 447.310,32 € izango da. Haurtzaro Ikastola, S.Koop.-ak dirulaguntza hori erabiliko du atezainaren soldata ordaintzeko eta ondorengo kosteak estaltzeko: mantenu konponketa txikiak, argindarra, erregaiak, igogailua eta berogailuaren mantenua eta eraikinaren garbiketa. Dirulaguntzaren zenbatekoa urtez-urte egokituko da garbitzaileen soldata igoeraren arabera, eta Haurtzaro Ikastola, S. Koop.-k Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarekin sinatutako itunaren ondorioz jasoko duen diru-laguntzaren baitan.”

Hirugarrena.- Halaber, beste bi klausula hauek onartzea eta hitzarmenari gehitzea, aldaketa guzti hauek eranskinean jasotzen diren moduan:

- 2023. urteko Haurtzaro Ikastola, S.Koop.-ko mantenu gastuak ordaintzeko 412.543,86 euroko dirulaguntza onartzea.
- Batzorde mistoan Oiartzungo Udalaren izenean aritzeko Jexux Leonet Elizegi alkatea izendatzea.

Laugarrena.- Erabaki hau gauzatzeko, Alkate-lehendakariari hitzarmenaren aldaketa edota bestelako dokumentuak formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko ahalmena ematea.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

## TXARONDO HERRI-BIDEA ITXI IZANAGATIK JABARI PUBLIKOKO ONDASUNA BERRESKURATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA.

Udal Mendi eta Ingurumen saileko teknikariak egindako txostenaren arabera, Txarondo herri-bidea giltzapetutako ataka baten bidez itxi du herritar batek, Portuberri Errota (Txarondoerrota) baserriko bidean.

Espedientean honakoa dokumentatu da: Txarondo bidea herri-bidea da eta Oiartzungo Herri Bideen Inbentarioan (10031 fitxa) jasota dago, “998-1000 Txarondo bidea” izendapenarekin. Bidea Aiako Harria Natur parkean dago, Erabilera Publikoko 20063.3 Martuzenegi mendian eta Aiendola eta Portuberri Errota baserrietara joateko bide nagusia da. GI-4322 errepideko 15,650 kilometro-puntuan hasten da.

Interesdunari behin eta berriz adierazi zaio bidea ezin duela itxi eta ataka kentzeko eskatu, baina egoerak bere horretan jarraitzen duenez, Mendi sailak proposatu du, Txarondo bidean egindako usurpazioa aldentzeko asmoz, ondasunak berreskuratzeko espedientea hastea.

Horrenbestez, toki entitateen ondasunak arautzen dituen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 9.3 artikulua eta toki araubidean indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen 54.3 artikulua jasota duen moduan, hirigintza teknikariak txosten juridikoa egin du, honakoa jasoz: herri bideak udal ondasuntzat hartzen dira eta jabari publikoko izaera dute, erabilera publikoko ondasunak direlako (781/1986 RDLeg.ren 74. eta hurrengo artikulua eta 1372/1986 ED.ren 3. artikulua). Halaber, ondare-autotuzetarako ahalmenen artean, eta mugen autodefinizioaz gain, toki-administrazioek euren jabari publikoko ondasunak edozein unetan berreskuratzeko aukera dute (1372/1986 ED.ren 70.1 artikulua) eta nahitaez erabili behar dute berreskuratzeko ahalmena, usurpazioa egiaztatu ondoren, beren ondasun eta eskubideak defendatzeko behar diren ekintzak burutu behar dituztelarik. Gainera, edozein bizilagunek eskatu ahal izango dio entitate interesdunari horrela egitea.

Halaber, udal mendi zerbitzuak egindako txosten teknikoan barneratu dira Oiartzungo Herri Bideen Inbentarioan jasota dagoen “998-1000 Txarondo bidea” ixtearen ondorioz egindako usurpazio eta gertakarien egiaztapena, kaltetutako ondasunaren deskribapena, antzemandako irregulartasunak, konponketaren balorazioa, plano edo krokisekin, eta kontuan hartu beharreko beste datu tekniko batzuk.

Guzti hau kontutan hartuta, Toki Jaurbidearen oinarriak onartzen dituen 7/1985 Legearen 4.1.d), 22.2.j) 68 eta 82 artikulua; Toki Entitateen Ondasunak arautzen dituen ekainaren 13ko 1372/1986 E. Dekretuaren 9, 44, 46, 71 eta 72 artikuluek eta Administrazio Publikoen Ondarea arautzen duen azaroaren 3ko 33/2003 Legeak xedaturikoaren arabera, Mendi eta Ingurumen Batzordeak 2023ko urtarrilaren 23an emandako diktamenaren adostasunean, Udal Osoak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Interesdunak Oiartzungo Herri Bideen Inbentarioko “998-1000 Txarondo bidea” giltzatutako itxiturarekin ixterakoan erabilera publikoko ondasuna bereganatuz egindako usurpazioa aldentzeko, jabari publikoko ondasuna berreskuratzeko espedientea martxan jartzea eta abiaraztea.

Bigarrena.- Interesdunari hamabost eguneko entzunaldia ematea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki irizten dion dokumentu eta justifikazioak alega ditzan.

### Botazioa:

	Bozka kopurua	Udal taldea/zinegotzia
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- XX -

**BESTE EKITALDIETAKO HAINBAT ORDAINAGIRI BALIOGABETZEA.**

Zerga bilketa arduradunak idatzitako txostenen baitan jarraian zerrendatutako erreziboak edo likidazioak baliogabetu eta kasua balitz, ordezeko agiriak sortzeko eta dagokionean itzulpenak egiteko proposamena egin du:

**ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ETA LURZORUAREN LEGEAK  
ESKATUTAKO HIRIGINTZA LIZENTZIAK EMATEAREN PETXA**

Ordainag.	€	Arrazoia
37 2019 01 5 50 1	413,76	Zuaznabar kalea 31 eta 33 lokalak elkartu eta kafe biltegi jarduerara egokitzeko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko maiatzaren 23an baimendutako obraren gaineko zerga eta Lurzoruaren Legeak eskatutako hirigintza lizentziak ematearen petxa Cafés Baqué S.A.ren izenean sortu ziren, Cafés Baqué, S.L.ren izenean sortu beharrean.
37 2019 01 5 50 2	5.754,53	
39 2019 01 5 41 0	552,48	Beraz, aipatu kitapena (41/2019) baliogabetzea eta titular zuzenarekin ordezeko zuzena sortzea proposatzen da.

**UR-HORNIDURA ETA ESTOLDERIA ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASA**

Ordainag.	€	Arrazoia
3 2022 02 3154	408,97	Ur erroldako oinarritzko dokumentazioa aztertu ondoren eta uretako teknikariak esandakoarekin bat, Pullegi bidea 4, Isla baserriari dagokion 2022/02 epeko uraren ordain-agirian gehiegizko kontsumoa erantsi zaio matxura baten ondorioz. Hortaz, aipatu ordain-agiria baliogabetu (ordaindua balego itzuli) eta ordezeko ordainagiria sortzea proposatzen da, fugan sortutako kontsumoa eta kontadore horrek jarduera arruntean daukan bataz besteko kontsumoarekin (192 m <sup>3</sup> ).

**Ordezko ordainagiriak**

kontzeptua	€
Pullegi bidea 4, 2022/02 epea	280,63

**EHORZKETA ZERBITZUAGATIK ZERGA**

Ordainagir.	€	Arrazoia
53 2022 01 25 108	364,62	Landarri S.L. ehorztetxeari, ehortzi ez dituen bi gorpuengatik ehorzketa zergaren ordain-agiriak sortu zaizkio. Izan ere, bi gorpu horien errautesak kolunbarioan sartu zituzten ehortzi beharrean.
53 2022 01 25 109	364,62	Beraz, Landarri S.L.ren izenean oker sortutako ordain-agiriak baliogabetzea eta dagokion tarifarekin (lanegunetan erautes-ontziak hilobiratzea: 262,31 €) ordezeko berriak sortzea proposatzen da

**ESKOLA PILOTA**

Ordainagir.	€	Arrazoia
-------------	---	----------

60 2022 10 58	24,00	Gazteria eta Kirola saileko teknikariak esandakoarekin bat, 2022/09tik 2023/01era sortutako ordain-agiri horiek ez dira zuzenak, Eskola Pilotan jada izena emana ez dagoen pertsona baten izenean sortu bait dira ordain agiriok. Beraz, aipatu ordain-agiriak baliogabetzea (ordainduak baleude itzultzea) eta ordezeko zuzenak egitea proposatzen da.
60 2022 11 58	24,00	
60 2022 12 58	24,00	
60 2023 01 58	24,00	

## ESPEDIENTE ZIGORTZAILE BATI DAGOKION ISUNA

Espedientea	€	Arrazoa
2021ZZ300003	901,00	Hondakinak aire librean kontrolik gabe uzteagatik espediente zigortzailea ireki zitzaion titularrari 2021eko 417 Dekretu bidez. Hondakin guztiak erretiratu bazituen ere une horretan espedientearekin aurrera jarraitzea erabaki zuen Udalak eta 901 €tako isuna ezarri zitzaion. Halaber, espedientearen bukaera eta isunaren likidazioa ezin izan dira jakinarazi. Tokiko Gobernu Batzarrek 2023ko otsailaren 14an espedientea indargabetzea erabaki du baina isunaren likidazioa aurreko ekitaldikoa denez (2021), Udal Osoak indargabetzea proposatzen da.

## JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA

Oiartzungo Udalak, udal zergen ikuskaritzaren ondorioz, argindarra saltzea xede duen SOM Energia, SCCL enpresa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan 659.9 epigrafean sartzea erabaki zuen eta erregularizazioarengatik 2015, 2016, 2017 eta 2018 urteetako likidazioak onartu zituen. Bide batez, zergaren matrikulan alta ematea proposatu zitzaion Gipuzkoako Ogasun Sailari eta horrela egin zuen Foru Aldundiak. Hartutako erabakia Zergen Zuzendaritza Nagusiaren kontsulta lotesleetatik sortutako doktrina finkatua aplikatuz hartu zen, bai eta Euskadiko Auzitegi Nagusiaren 2017ko ekainaren 7ko erabakietatik sortutako doktrina finkatua aplikatuz ere.

Halaber, orohar argindar saltzaileen jardueraren gaineko zergaren auzia administrazioarekiko auzitegira iritsi zen, kasu batzuetan ez zen epigrafea kuestionatzen baizik eta non ordaindu behar den, gure kasuan, Oiartzungo udalerrian ordaintzea. Beste kasu batzuetan epigrafea bera kuestionatzen zen. Azkenean, Epaitegi Gorenak 2021eko maiatzaren 12an 659 zk.ko Sententzia eman zuen.

Epaiak argindarraren salmenta JEZ zergaren zein epigrafean kokatu beharko litzatekeen zehaztera dator. Argindarraren salmenta suposatzen duen jarduera 151.6 epigrafean sartu behar da eta ez 659.9an. Gainera, epigrafe horretako kuota herrikoa, herrialdekoa edo estatutakoa izan liteke.

Guzti hau kontuan hartuta 2015, 2016, 2017 eta 2018 urteetako kitapenak, 659.9 epigrafepean sortutakoak, baliogabetzea eta ordainduak baleude kopuruak itzultzea proposatzen da:

### SOM Energia, SCCL

Ordainag.	Kontzeptua	€
45 2015 01 15 107	Likidazioa	328,44
45 2016 01 17 69	Likidazioa	328,44
45 2017 01 09 62	Likidazioa	328,44
45 2018 01 07 64	Likidazioa	328,44

Era berean bere jarduerarekin bat datorren epigrafean 151.5 (elektrindarraren garraio eta banaketa) edo/ eta 151.6 (energia elektrikoa merkaturatzea) sartu beharko da eta titularrak esan beharko du alta herri mailako, herrialdekoa edo estatukoa den.

Ogasun, kontu berezien eta beste gaien batzordeak, 2023ko otsailaren 7an eta 21ean egindako bilkuretan emandako diktamenekin adostasunean, Udalbatzak honako akordioa hartu du:

Zerrendatu diren erreziboak eta likidazioak baliogabetzea eta kasua balitz, ordezeko agiriak sortzeko agindua ematea. Halaber, eta dagokionean, ordaindutako diru-kopurua (gainkargua barne) itzultzea, bertan azaltzen diren arrazoiengatik.

**Botazioa:**

	<b>Bozka kopurua</b>	<b>Udal taldea/zinegotzia</b>
<b>Alde</b>	13	EHBildu – EAJ/PNV
<b>Aurka</b>		
<b>Abstentzioa</b>		

Beraz, gaia aho batez onartu da aldeko 13 botorekin (EHBildu – EAJ/PNV ).

- XXI -

2022KO LAUGARREN HIRUHILEKOARI DAGOKION AURREKONTUAREN EXEKUZIOAREN, AURREKONTUZ KANPOKO MUGIMENDUEN ETA DIRUZAINZAREN EGOERAREN BERRI EMATEA.

2022ko udal aurrekontuen urria-abendua hilabeteetako exekuzioaren berri eman da, eranskin modura aurkezten den dokumentuaren bidez. Halaber, 2022ko diruzaintza planaren exekuzioa, diru-zaintza kontua, diru-fluxuen egoera-orria eta aurrekontuzkoak ez diren kontuak dokumentuak ere aurkezten zaizkio Udaltzari. Gogorarazten da uneoro agiriok kontu-hartzailetzako bulegoetan egongo direla eta web orrian ere zintzilikatuko direla edonork ikusteko.

Udaltzari guzti honen berri eman zaio.

- XXII -

BESTE ORGANO BATZUEN JARDUERAREN JARRAIPENA: HARTUTAKO ERABAKIEN (ALKATETZAREN EBAZPENAK ETA GOBERNU BATZORDEKO AKORDIOAK), PROTOKOLO GASTUEN, KREDITU ALDAKETEN ONARPENEN ETA 2023KO FINANTZA KONTROLEKO PLANAREN BERRI EMATEA.

Hartutako **erabakiak:**

Alkatearen ebazpenak:

2023ko urtarrilaren 21etik 2023ko otsailaren 24a arte.

Zk. 2023/83tik 2023/292a arte.

Tokiko Gobernu Batzarrak:

2023ko urtarrilaren 24 eta 31eko bilkurak eta otsaileko 14 eta 28ko bilkurak.

Protokolo eta ordezkapen **gastuak eta dietak:**

2023ko otsaila:

Jardunaldia, aurkezpenak: 242,00 €

Inprenta, diseinua, web orria: 266,20 €

GUZTIRA: 508,20 €

2023 ekitaldiko 1. **kreditu aldaketaren** berri ematen da, transferentzia bidez onartutakoa, 2023ko otsailaren 13ko 224 zenbakiko Alkatearen ebazpenaren baitan. Honela dio:

“DEKRETUA

Oiartzungo udal honen aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentziaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiela.

Hau dena kontutan harturik erabakitzen dut:

Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, Oiartzungo Udal honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

**Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (bajak)**

Kap.	Izena	€
2	Gastu arruntak	43.606,24
MURRIZKETAK GUZTIRA		<b>43.606,24</b>

**Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (altak)**

Kap.	Izena	€
2	Gastu arruntak	14.950,00
2	Transferentzia arruntak	28.656,24
MURRIZKETAK GUZTIRA		<b>43.606,24</b>

Alkate udalburu jaunak agintzen eta sinatzen du.”

Oiartzungo Udaleko **2023ko Finantza Kontroleko Plana:**

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren xede da tokiko sektore publikoko barne kontroleko foru eredu bat sortzea, tokiko autonomiaren printzipioa errespetatuz, arriskuak eta eskura dauden bitartekoak kontuan hartzen dituen kontrol eraginkorreko gutxieneko maila bat finkatzeko.

Aipatu Dekretuaren III. Tituluko Lehen kapituluan kontrol finantzarioaren alderdi orokorrak jasotzen dira eta oinarritzko baldintza gisa ezartzen da organo kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatzea eta gauzatzea.

Horrela, kontu-hartzaileak 2023 urteko finantza kontroleko plana idatzi du Oiartzungo Udala eta Oiartzungo Turismo Aukerak, S.A. entitateei aplikagarria zaiena. Alde bteik, 2021 eta 2022 ekitaldietako finantza kontrol iraunkorreko jarduketak eta 2021 ekitaldiko ekonomia eta finantza kudeaketari buruz egin beharreko auditoretza publikoa barneratzen ditu plan honek,



eta bestetik, ordenamendu juridikoan organo kontu-hartzaileari egotzitako kontrol jarduketak. Aipatu planak honako atalak lantzen ditu: aplikatu beharreko araudia, xedeak, arriskuak eta lehentasunak, hautatutako jarduketan gaineko finantza kontroleko prozedura, finantza kontrol iraunkorra, auditoretza, planaren aldaketa eta gardentasuna.

Plana eta finantza-kontrolen gauzatzearen ondoriozko emaitzak Gardentasunaren Atarian argitaratu beharko dira, gardentasunari informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko anduaren 9ko 19/2013 Legearen 6.2. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 52.k artikuluan ezarritakoarekin bat.

Guzti honen berri eman zaio Udalbatzari.

- XXIII -

#### ESKARI-GALDERAK.

Ez da eskaerarik ez eta galderarik egin.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra, 19:04ak direnean. Idazkariak batzarrari dagokion agiri hau idatzi eta alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, idazkaria naizen honek, ematen dut.

Alkatea

Idazkaria

Elektronikoki sinatutako agiria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU70aba816-555d-4821-a09c-0a1a20c2dbb7**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>**

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2023ID370003-Akta/Akta (OIARTZUNGO UDALA)